



Irten Armairutik! - Euskararen Maratoia Donostian aurkeztu zen asteazkenean. Ekimenak Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesu jaso du eta horrela izanda, Mikel Irizar Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako zuzendaria aritu zen 40 eguneko egitasmoa azaltzen Jon Antxordoki euskara zinegotzia, Naiara Mujika Ttakuneko ordezkaria eta zortzikoteko Joxe Mari Agirretxe eta Oihana Fu Otaegirekin. 40 egunen ekimenak Lasarte-Oriatik kanpo piztu duen interesa azpimarratu zuten eragileek. "Egitasmoaren molde eta ekintzak berritzaileak izateaz gain, lehen aldia izango da horren parte hartze zabalarekin elebidun hartzailerekin hiztunen ohitura linguistikoetan jokatzeko paperari buruzko ikerketa akademiko bat egingo dena. Azterlan honen ondorioak etorkizuneko hizkuntza politiketara eta euskararen arloko ekintzetara eramateko baliagarriak izatea espero da", aipatu zuen Irizarrek. Urriaren 23an hasi eta abenduaren 3ra bitartean, "herritarrak euskarara gerturatu eta hizkuntza erabiltzera" animatu nahi dituzte. 300 ahobizi eta 3.000 belarriprest lortu nahi dira. Joxe Mari Agirretxek Maratoiaren sorrera eta herrian euskararen ezagutza mailan gertatutako bilakaeraz hitz egin zuen.

3 UDALA Maialen Chourraut da kiroldegiaren izena

Aurrerantzean kiroldegiaren izena 'Maialen Chourraut Udala Kiroldegia' izango da, asteartean udalbatzarrak horrela adostuta. Izena herriak egiten duen kirol eskaintzak hartuko du, ez eraikinak. Askatasunaren Parkea berdiseinatzeke, 2017an parte-hartze prozesu bati ekiten ere adostu zuten.



4 AZOKA I. Xakobeko Azoka gaurtik igandera gurean

Arratsaldetik aurrera, erdiguneko kaleak Erdi Aroko Done Jakue bidearekin girotuko dira. 90 artisau postu inguru jarriko dira, eta, horrez gain, tailerrak eta emanaldi ezberdinak egingo dira Elizatze plazan eta azokan asteburu guztian zehar. Azoka dela eta Kale Nagusia trafikoa erantzat itxita egingo da.

5 EUSKARA Euskararen 9. Maratoia laguntzaile bila

Hurbiltzen doa Euskararen Maratoia. Jaialdi erraldoia izaten da hau eta aurreko edizioetan bezala, dena ondo aterata dadin beharrezkoa da herritarren laguntza. Astelehenean aurrera izenhartzea.euskararenmaratoia.eus helbidean lan eta txanda ezberdinetan izena emateko aukera zabalduko da.

EPA LASARTE HHI

2016-2017 ikasturtea

MATRIKULA EPEA ZABALIK
Irailaren 2tik 16ra



OFIZIALA ETA DOAKOA

- Lehen eta bigarren hezkuntza arautuak (DBH/ESO)
- Goi zikloko eta Unibersitateko sarbidearen prestaketa
- Gaztelania atzerritarrentzat
- Tailerrak: Euskara, ingelesa, frantsesa, informatika, nutrizioa, artea, literatur tertulia
- DELE A2 eta CCSE proben prestaketa

Ordutegia:
10:00-12:00
17:00-19:00*
(*ostiralak ezik)



Neure kabuz



Gorka Alvarez

Kea da modan dagoen fragantzia

Kerobia taldearen Supernova diskoko abesti batek zioen moduan, "Kea modan dagoen fragantzia da". Keak inguratzeko gaitu, keak liluratzen gaitu eta keak babestu eta ziur sentiarazten gaitu.

Kea saltzea, erostea, erabiltzea, barreiatzea eta bereziki kearen erabilera berekoia egitea ohiko praktika bihurtu da. Politikagintzari ustel usaina dariola behin baina gehiagotan entzun izan dugu azken hamarkadetan. Ustel usain hori ordea, ke usainez estaltzea lortzen dute behin eta berriz. Ikusi besterik ez dago estatuko azken hauteskundeetako emaitzetan ustelkeriaren eta lapurretaren aldeko bozka gailendu dela berri ere.

Gizarteak gustuko du kea erostea, kea usaintzea eta gainera keak guztia estaltzen duela sinetsita gaudela dirudi. Nola azaldu bestela? Kea ustelkeria ez ikusteko, kea gaitasun eza agerian ez geratzeko, kea egunerokotasunean jasotzen ditugun albiste sinesgaitzak lurrinez busti eta goxoki usaintsu moduan gugana iristeko. Gizarteak gustuko du bai, gustuko dugu kea amastea. Ke hori sortzen duten mekanismoek seguru sentiarazten gaituzte eta aldatetaren beldurrak ke hori amasten jarraitzea eramaten gaitu. Pozik bizi gara gure gogoko gauzak entzunez. Zertarako entzun albokoaren nahia edo beharra.

Irailaren 25ean EAEan hauteskunde berriak ditugu. Gehiengoak nekatu xamar gaude bozka kutxetara joatearekin. Nahikoa ke amastu dugulakoan joango gara batzuk. Alderdi politikoei, asko eskatzea izango dela iruditzen bazait ere, ke gehiago ez saltzea eskatzen diet. Bai, herriarentzat egiten dutela lan esango didate alderdi guztiek. Alderdi zale amorratuak ere saldu nahiko dute beren alderdiaren lurrina. Horixe beste arazoetarik bat. Lurrina konbentzitzeko erabiltze hori jasangaizta egiten zait. Lurrin horrek bere xarma galtzen baitu kea dela konturatzen zarenean.

Ke gehiegi arnastutakoak gara norabide eta alderdi guztietatik. Egunerokotasunean herritarroi eragiten diguten alorrek modu egokian bideratzeko, hitzak baino ekintzak nahi ditut eta bide batez ere, behingoagatik ke sinboliko eta ideologikoaren zurrumbilao utzi eta adostasunak bilatu ditzatela ke hau benetako ke kutsagarri bihurtu ez dadin, horrek bai, izango duelako, gudan, herritarrrongan eragina. Errausketarik ez! Ez hemen, ez inon!

Zorion agurrak



Imanol

Zorionak!!! Oso ondo ospatu eguna guraso, Richar, Itziar, Pablo eta Maiteren partetik.



Maitane

Zorionak maitia!! Mila muxu aitaxo, amaxo eta Itsasoren partez. Oso ondo pasa zure eguna!!



Eneritz eta Aizpea

Zorionak sorginak! Urtebete gehio egin arren beti bezain polit zaudete! Muxu potolo bat familiaren partetik!



Itsaso

Zorionak printzesa!!! Ondo pasa eguna eta bost muxu potolo aitaxo, amaxo eta Maitaneren partez.



Antonio eta Maria Luisa

ZORIONAK!!!! Ondo pasa! Maite zaituztegu.



Unai

Urtebetez osasunerako onak dira: estatistikek erakusten dute urtebetez gehiago ospatzen dituzten pertsonak denbora gehiago bizi direla.



Arantxi eta Naiara

Zorionak artistak!!! Ongi etorri hemezortzieta-rra!! Eutsi goiari 9. Maratoia pasa arte!! Ttakuneko lankideen partetik.



Uxue

Zorionak printzesa zure 6. urtebetez-zean!!! Askok maite zaitugu! Muxu handi bat familiaren partez!

Azoka txikia

Higiezinen Eskaintza

- Hernaniko Sarexo-Txiki golfa traspasatzen da. Aukera ona. 679 680 465.
- Pisukide bilatzen dira. Jende gaztea eta langilea. Pisua Lasarteko erdialdean dago, logelak haundiak eta argitsuak dira. Sartzeko prest. Alokairua 250 euro gehi gastuak izango litzateke. Informazio gehiago, deitu edo whatsapp bidali 656 772 201, Ana.
- Pisu txiki bat hartuko nuke alokairuan bi pertsona adinduentzako Lasarte-Oria erdi aldean. 6 bat hilabetetarako gutxi-gorabehera. Berehala joateko moduan egotea eta igogailua portaletik etxeraino izatea ezinbestekoa da. Harremanetarako dei ezazu 685 723 741 edo 663 751 613 telefono hauetako batetara.

Lan eskaintza

- Goiegi jatetxean astean ordu batzuk lan egingo lukeen, pertsona bila dabil. Zerbitzari laguntzai-

lea: Euskalduna eta bezeroari arreta-zerbitzua emateko gogoa duena. Esperientzia ez da derrigorrezkoa. Garbiketa garbiketako zenbait lan ere egin beharko ditu. Interesa dutenek jatekera hurbildu daitezela curriculumarekin.

Lan-eskaria

- Emakumea eskaintzen da adineko pertsonak zaindu edota garbiketa lanetarako. Externa eta orduka. 671 763 558.
- Emakumea eskaintzen da interna moduan, externa moduan edo orduka lan egiteko. 674 901 599.
- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun eta asteburuetan... edozertarako prest. Orduka lan egiteko prest. 943 404 015/606 661 048.
- Interna, externa modura edo orduka lan egiteko prest nago. Garbiketan edo pertsona adinduen zaintzan. 671 763 558, Lidia.

Jaiotzak Heriotzak

Jaiotzak

- Jon Izquierdo Ordoñez, irailaren 11an.
- Julen Mauricio Lopez Corrales, irailaren 6an.
- Mateo Jimenez Villaron, irailaren 5ean.
- Martina Sanz Rodriguez, abuztuaren 23an.
- Mikel Bermudez Gaspar, abuztuaren 23an.
- Daniel Sañudo Sanchez, abuztuaren 23an.



Heriotzak

- Bautista Sucunza Sagastibelza, irailaren 8an, 86 urte zituela.
- Jose Lopez Dueñas, irailaren 4an, 93 urte zituela.
- Pedro Garcia de Frias, irailaren 4an, 70 urte zituela.
- Jose Lopetegui Gorostiaga, abuztuaren 10ean, 79 urte zituela.
- Teresa Benito Gonzalez, abuztuaren 19an, 99 urte zituela.
- Jose Solano Irigaray, abuztuaren 7an, 81 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 9:00-22:00

Ostirala, 16 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Larunbata, 17 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Igandea, 18 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Astelehena, 19 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Asteartea, 20 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Asteazkena, 21 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Osteguna, 22 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Elozegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maidar Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

UDALBATZARRA

Kiroldegiari izen berria

Ikasturteko lehen udalbatzarra burutu du udal korporazioak

Hemendik aurrera, Kiroldegiaren izena 'Maialen Chourraut Udal Kiroldegia' izango da, udalbatzarrak hala adostuta. Izen hori herriak egiten duen kirol eskaintzak hartuko du, ez eraikinak berak. Bestalde, Askatasunaren Parkea berdiseinatzeko, 2017an parte-hartze prozesu bati ekitea ere adostu zuten. Bake epaile titular berria ere badauka herriak: Susana Zurutuza.



Astearte arratsaldekoa izan zen ikasturte honetako lehenengo ohiko udalbatzarra.

TXINTXARRI

Ikasturte berriko lehenengo ohiko udalbatzarra ospatu zuten alderdiek astearte arratsaldean. Gai-ordenari ekin aurretik, Miguel Angel Blancoren eraiketa gaitzeste aldera, minutu bateko isilunea egin zuten. PPK aurkeztu zuen proposamen hori, uztailako batzarrean. EHBilduko zinegotziek areto kanpoan itxaron zuten, minutu hori igaro arte.

Ondoren, PSE-EEK eta Lasarte Oriak Ahal Du alderdiek proposatuta, bake-epaile titular eta ordezkoren izendapenen inguruan eztabaida-

tu zuten. Susana Zurutuza eta Leire Jimeno proposatu zituzten, hurrenez hurren. Onartua izan zen, hamaika aldeko bozka eta lau aurkakorekin.

EAJ eta EHBilduk aurka bozkatzearen arrazoiak plazaratu zituzten. Izendatutako pertsonak administrazioan lan egiteko behar besteko euskara profila betetzen ez duela argudiatu zuten. Jesus Zaballós alkateak erantzun zien profil egokia zeukala.

Kiroldegiaren izen berria

Udal Kiroldegiak Maialen Chourraut piraguitaren izena hartuko du hemendik aurrera. Alkatetzak egindako proposa-

mena kide guztiek onetsi zuten, aho batez. Dena den, kritikak jaso zituen Alkatetzak proposamen hori aurrera eramateko moduak. Hainbat alderdik eskatu zioten horrelako gaiak korporazioko kideei helaraztea aurrean.

Askatasunaren Parkea

EAJk proposatuta, 2017an Askatasunaren Parkea berdiseinatzeko parte-hartze prozesu bat abiatzea adostu zen pleno aretoan. Alderdi jeltzaileak argudiatu zuen parke horrek ez duela bat egiten "herritarren gunetzat kontsideratu zen ideiarekin ezta erabilerarekin ere".

Alderdiak kalean izan dira kanpainen

Eusko Legebiltzarretako hauteskunde kanpainen alderdiek kaleko ekintzei garrantzia eman diete. Aste honetan hainbat ekintza izan dira herrian.

PSE-EE alderdiak astelehenean Isla plazan. Bertan Gipuzkoako hautagaia den Susana Corcuera eta Antonio Hernando Estatuko Kongresuko bozeramailea izan ziren hizlari.

Ostean, larrosa banaketa egin zuten plaza eta inguruetan.

Azoka

Asteazkenean, azokan ikusi ahal izan genituen EAJ, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos alderdietako kideak.

Lasarte-Oriako Elkarrekin Podemosek Andoain eta Hernaniko alderdikideen laguntza izan zuten haien programa eta goxokiak herri-tarrei banatzeko.

PSE-EEko kideek aldiz, aste honetan bigarren,

Susana Corcuera bisita jaso zuten azokako larrosa banaketa egiteko.

EAJko kideek gozokiak, programak eta poltsak banatu zituzten.

Asteburuko ekintzak

Bestalde, ez dira hauek aste honetako ekintza bakarrak izango, larunbatean ere ekimenak iragarri dituzte herrian hainbat alderdik.

EHBilduk larunbatean Ipar martxa saio berezia antolatu du, 11:00etan.

BM parean hasi eta Lasarte-Oriako hainbat toki esanguratsu ezagutuko dituzte. Ibilbidean zehar, parte hartzaileek alderdi abertzalearen programaren berri izango dute.

Era berean, arratsaldean EHBilduk Miribilla-Bilbao Arenan antolatu duen ekitaldi nagusira hurbilduko dira alderdiko kideak.

Autobusa arratsaldeko 15:30ean aterako da Ilargi

taberna ondoko geltokitik Bilbora.

Bestalde, Elkarrekin Podemos alderdiko kideak kalean izango dira larunbatean.

Mahai informatiboa jarriko dute haien programari buruzko azalpenak eskaintzeko.

Beste ekimenak

Hau guztiaz gain, Lasarte-Oriako EHBilduk Otegiren inhabilitazioa gaitzetsi eta eskubide demokratikoak aldarrikatzeko argazki-kanpaina jarri du abian.

Honetan herritarrek Otegiaren keinua eginaz argazkia atera eta facebook edo twitter bidez alderdiari bidali behar diote.

EHBilduko kideek jakitera eman digutenez, sona handia izan du sare sozialetan eta dagoeneko 200 argazki jaso dituzte.

Biltzen dituzten argazki guztiekin mosaiko handi bat osatzen ari dira, ondoko argazkian ikusi daitekeen moduan.

ERKETZ EDT

Dantza eskolan izena ematea epea

Lasarte-Oriako Erketz EDT-ko lagunek dantza eskola ikasturtea hasiko dute aurki. Lehenik taldeak osatzeko izena emate epea ireki dute.

Dantza eskolako arduradunek 5 eta 14 urte arteko haur eta gaztetxoak lotsa astindu eta haien euskal dantzetan lehen pausoak eman edo dantza ezberdinetan murgiltzera gonbidatzen dituzte.

Interesa dutenek irailaren 19an, 20an eta 21ean Manuel Lekuona Kultur etxeko lehen solairuan, kafetegi ondoan, egin ahal dute izen-ematea arratsaldeko 18:00etatik aurrera.

Dantza eskolari buruzko informazio gehiago jaso nahi duten herritarrek egun horietan Manuel Lekuonara hurbildu edo 635 746 028 telefonora deitu dezakete.

LANDABERRI 50. URTEURRENA

Euskal Olinpiadetan izena emateko azken egunak

Landaberi ikastolaren 50. urteurrena ospatzeko ekitaldien artean, 'Landaberriko Euskal Olinpiadak' ospatuko dira irailaren 25ean Michelingo kirol gunean.

Antolatzaileek azaldu dutenez, jolas giroan antolatutako probak izango dira, non abileziak bistan geldituko diren. 14 urtetik gorakoentzat zuzendutako olinpiadak izango dira eta taldean parte hartuko da, gutxienez 10 pertsona; gehienez 12.

Izena ematea lehenbailehen egin behar da www.facebook.com/landaberri50 estekan.

LANAK

Buenos Aires aldapako berrurbanizazioa


Lasarte-Oriako Udalak aditzera eman duenez, Buenos Aires Aldapa hobetzeko lanak hasi dira. Helburua urbanizazioa berritu, espaloiak zabaldu eta irisgarritasuna hobetzea da. "Besteak beste, barandak ipiniko dira partzela-mugetan, baita eskubandak ere, Buenos Aires aldapako irisgarritasuna errazteko xedearrekin".

Eusko Jaurlaritzak finantzatua den obra honek 532.097 euroko kostua du, eta hiru hilabete eta erdi iraungo du. Lanketa nagusia Buenos Aires aldapan egingo da, biribilgunetik hasi eta Larrekoetxe Bideko 3. zenbakiaren ondoan dagoen bidegurutzeraino. Horretarako, ordea, ibilgailuen zirkulazioa norabide bakarrera mugatuko da Larrekoetxe Bideko tartean.

Honetaz gain, Construcciones Artzamendi enpresak, hobekuntza moduan, beheko biribilgunea eta Loidi Kalea asfaltatzea eskaini duela jakitera eman du Udalak.



Hauteskunde kanpainen ekintza ezberdinak ari dira gauzatzen alderdiak.



Parte hartu Euskararen Maratoian!

Laguntzaileak behar ditu Euskararen Maratoiak /
Urriaren 22 eta 23an izango da jaialdia /
Astelehenetik aurrera eman ahalko da izena

Maratoian laguntza eman edota ekintza ezberdinetan parte hartzeko izena emateko epea astelehenetan zabalduko da. Aurreko Maratoian egin bezala, on-line eman ahalko da izena euskararenmaratoia.eus helbidean.

Euskararen bederatzigarren Maratoia hemen da. Urriaren 22 eta 23an ospatuko da herrian euskararen jaialdi erraldoia eta dagoeneko iritsi da herritarrei laguntza eskatzeko garaia.

Aurreko edizioetan bezala esku asko behar dira 40 orduko jaialdi honetan antolatzen diren ekintza guztiak aurrera ateratzeko. Lan txandetan muntaia, desmuntaia, otorduetako zerbitzariak, txosnan txandak eta informazio puntuan lan egiteko beharko da jende gehien.

Etiket mugitu gabe

Lanerako edo bestelako ekintzetan parte hartzeko on-line egin ahal izango da izen-ematea astelehenetik aurrera. Aurreko edizioan egin zen lehenengoz eta horrela, modu errazean, herritarrek ez dute etiket mugitu beharko tramite hau egiteko. Hala ere, oraingoan mugikorretatik ere egin ahal izango da. Webgunea gailu guztietara moldatuko da eta.

Eman beharreko pausoei dagokionez, maratoiko webgunetik edota zuzenean izenhartzea.euskararenmaratoia.eus helbidean sartuta hartu daitezke txandak. Lehenengo, erabiltzaile bezala erregistratzeko eskaera beteko da eta behin sartuta, bertan azalduko dira lan txandak eta ekintzen ordutegi guztiak.

Horrela Txosnan lan egiteko prest egotekotan, ekintza horretan klikatu eta hoberen dagokigun ordua hautatuko dugu.

Erabiltzaile batek nahi beste pertsona apuntatu ahal izango ditu txanda horretarako hau da, koadrilakoekin lan txanda batean izena eman nahi duenak, ez ditu besteen datuak eman beharko, bost lagun direla zehaztearekin nahikoa

Izen hartzeak

Helbide elektronikoa:

Pasahitza:

Erregistratu
Pasahitza ahaztu zait!

HARREMANETARAKO
Ttākun Kultur Elkarteak
Gettōki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria
943 37 14 48 - info@euskararenmaratoia.eus

Parte hartzea

Boluntaritza

HARREMANETARAKO
Ttākun Kultur Elkarteak
Gettōki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria
943 37 14 48 - info@euskararenmaratoia.eus

TXOSNA

2016ko Urriaren 22

Ordua	Deskribapena	Plaza libreak	<input type="button" value="Erreserbatu"/>
11:00-14:00	Zerbitzate lanak	3	<input type="button" value="Erreserbatu"/>
14:00-17:00	Zerbitzate lanak	3	<input type="button" value="Erreserbatu"/>
17:00-20:00	Zerbitzate lanak	3	<input type="button" value="Erreserbatu"/>
20:00-23:00	Zerbitzate lanak	4	<input type="button" value="Erreserbatu"/>

HARREMANETARAKO
Ttākun Kultur Elkarteak
Gettōki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria
943 37 14 48 - info@euskararenmaratoia.eus

TXOSNA

Zerbitzate lanak

Kopurua:

HARREMANETARAKO
Ttākun Kultur Elkarteak
Gettōki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria
943 37 14 48 - info@euskararenmaratoia.eus

Webgunean sartuta, hauek dira herritarrek eman beharreko pausoak.

izango da. Noski, txanda bakoitzean behar diren pertsona kopurua zehaztuta dago eta ezingo da hau gainditu. Horrela nahi dugun ordua beteta dagoela ere ikusi ahal izango dugu. On-line izen-ematea egin ostean, Maratoiko antolatzaileak arduratuko dira telefonoz edota e-mail bidez parte hartze hau konfirmatzeaz hutsik egon ez dadin.

Erabiltzaileak aukera izango du gainera, behin erregistratuta, bere parte hartzea kudeatzeko. Txanda batean baino gehiagotan izena eman ahal izango du adibidez.

Interneten moldatzen ez direnak berriz, ohiko bideak erabili ahal izango dituzte. Horrela laguntzeko prest

daudenak Ttakuneko bulegotik pasa edota 943 371 448 telefonora deituta egin ahal izango dute izen ematea.

Facebook eta Twitter

Maratoiak ez dauka atzera bueltarik, dagoeneko gainean dugu eta herrian jai honetarako giroa sortzen doa.

Zortzikotea, antolaketan dabilen lantaldearekin batera, gogoz dabil egitarau erakargarri eta parte hartzaileak prestatzen. Ohi bezala, asko izango dira ezustekoak baina datozen asteetan argitzen joango dira egitaraua osatuko duten ekintzetako batzuk.

Bitartean, Facebook eta Twitter kontuetan zortzikoteko kideak ari

dira euren lanari buruzko informazioa eta argazki zein bideoak txertatzen. Jarrai itzazue sare sozialetan, merezi du eta!

Materiala salgai

Gainerakoan, gogoratu Euskararen Maratoiko materiala salgai dagoela. Jalgi Kafe Antzokian eta Ttakuneko bulegoan eros daitezke kamiseta gorri dotoreak, kirol jertseak eta poltsak. Prezioei dagokionez, haurren kamisetak 10 euro, helduenak 12 euro, kirol jertseak 20 euro eta poltsak 6 euroren truke eskura daitezke.

Animatu eta parte hartu, denon artean egingo dugu Euskararen 9. Maratoia!



Done Jakue giroa asteburuan

Ostiraletik igandera, Lasarte-Oriako erdialdea itxita egongo da

I. Xacobeo azoka aurkeztu zuten udal ordezkari eta azokako antolatzaileek asteazken goizean. Ostiral arratsaldetik igandera, Lasarte-Oriako erdigunea Erdi Aroko Done Jakue bidean murgilduko da. Artisau postuak, tailerrak eta emanaldi ezberdinak izango dira.

TXINTXARRI

Jesus Zaballos Lasarte-Oriako alkateak, Maite Iglesias Kultura batzordeburuak, Xabier Goitia Kultura teknikariak eta Pedro Carrasco azokako antolatzaileak azokaren nondik norakoak azaldu zituzten asteazkeneko agerraldian.

“Jendeak ez du uste baina Done Jakue bidea Lasarte-Oriatik igarotzen da. Hori sustatzeko eta jakinarazteko, I. Xacobeo azoka antolatu dugu”, azaldu zuen Jesus Zaballos alkateak.

Pedro Carrasco azokako antolatzaileak adierazi moduan, iaz hasi zen azoka eta pixkanaka herri ezberdinetatik igaroaz, 2021ean, hurrengo Xacobeo urtean, Santiagora iritsi nahi dute. Horretarako, Done Jakue bide ezberdinak erabiliko dituzte, “batez ere, ezezagunenak direnak, barrualdeko euskal bidea da Lasarte-Oriako kasua”.

Eskaintza kulturala

Era honetara, ostiraleko 17:00etatik igande gauera arte, Okendo plazan, Kale Nagusian eta Elizatze plazan Done Jakue bidearekin zer ikusia duten ekintza ugari izango da, baita 90 bat artisau postu ere.

Carrascoren hitzetan, azokaz gain, eskaintza kulturalari ere eman zaio garrantzia. Antzerkia, musika zeltan oinarritutako kontzertua, haur eta helduei zuzendutako tailerrak, euskaraz eta gaztelerez ipuin-kontalariak, txotxongioloak, sua eta antzerkia uztartzen dituen emanaldia... hainbat ekintza izango dira Elizatze plaza eta azokan zehar.

Guztien artean, Carrascoren aburuz azpimarragarria da euskal izaki mitologikoei buruzko erakusketa. Hau Udaletxe berriko arkupetan egongo da ikusgai. Erakusketara hurbiltzen direnek izaki



Udal ordezkariak eta Xacobeo azokako antolatzaileak aurkezpenean.

mitologiko hauen istorioa eta honekin lotuta dauden usadioak ezagutu ahaliko dituzte azokako laguntzaile bati esker.

Horrez gain, larunbat goizeko 10:30etako kalejira ere “deigarria” izango dela aurreratu du. “Azokan parte hartzen duten kide eta talde guztiek parte hartuko dute honetan eta herriko erdigunetik ibiliko dira. Okendo plazan amaituko da. 11:00etan, pregoia irakurriko da”.

Kale Nagusia itxia

Azokak hiru eremu nagusi izango ditu Okendo plaza, Kale Nagusia eta Elizatze plaza.

Okendo plazan, hainbat artisau postu, pulperia, teteria eta taberna izango dira. Elizatze plazan, tailerretaz, umeentzako jolasen eremuaz, ipuin-kontalarietaz, txotxongioloetaz eta antzerkiez gozatu ahaliko dute herritarrek. Azkenik, Kale Nagusia, Tajamarreko biribilgunetik hasi eta Ola

Kaleko biribilgunera, artisauen postuez beteta egongo da.

Hori dela eta, Lasarte-Oriako Udalak ohartarazten du, ostiraleko goizeko 9:00etatik igande gau erdira arte, Kale Nagusiko eremu hori itxia egongo dela.

Azkenik, Udalak eta azokako antolatzaileek herritarrek gonbidatzen dituzte asteburuan erdigunera hurbildu eta azoka eta bere ekintzez gozatzera.

Mugikortasun Astea hilaren 20tik 23 bitartean egingo da

Europa mailako ekimenarekin bat eginez, Lasarte-Oriako Udalak eta Artelatzen Mugikortasun Astea antolatu dute. Irailaren 20tik 23ra bitartean ospatuko da.

Artelatzen kide Aiala Eceizak, herriko alkate Jesus Zaballosek eta Ingurumen zinegotzi Agustin Valdiviak aurkeztu zituzten ekimenaren nondik-norakoak, astelehen arratsaldean. Beste ezer baino lehen, jakinarazi zuten herritarren etxetara bidalitako informazio-orrietako batean akats bat dagoela. Mugikortasun Asteko zenbait ekintza gaur egingo direla jartzen du, baina ez da horrela; 23an burutuko dira.

Bizikleta protagonista

Protagonista nagusia bizikleta izango da, baina ez bakarria.

Aurtengo edizioako berrikuntza aipagarrietako bat da ikastaroak egingo direla herriko DBH mailako bi ikastetxeetan, hilaren 20an eta 21ean. Ikasleek aditu baten aholkuak jasoko dituzte aipatu bi egunetan.

Bizikleten bigarren eskuko azoka izango da beste arretaguneetako bat. 23an egingo da, Okendo plazan, 16:30etik 19:30era. Bertan zerbait saldu nahi duten herritarrek azoka hasi baino ordu t'erdi lehenago eraman beharko dute materiala, plazara bertara. Salneurria 300 eurokoa izango da, gehien jota.

Egun horretan bertan, 6-11 urte bitarteko eta 12 urtetik gorako gaztetxoek bizikleta martxan hartu ahaliko dute parte. Okendo izango da irteera-lerro eta helmuga. Gazteenak 16:30ean aterako dira, eta 17:00etan besteak.

Ekintzekin jarraituz, irailaren 22a 'Nire autorik gabeko eguna' izango da; Muittu Manttangorri hiribusa doakoa izango da herritarrentzat.

Eta, bukatzeko, 'Kalea Jolaserako' ekimenaz gozatuko dute gazteek, 23 arratsaldean, Kale Nagusian. 16:30etik 19:30era mugikortasunarekin lotutako jolasetan aritu ahaliko dira: segway ibilbidea, herri kirolak, bizikletarekin jolas ezberdinak, etab.



Artelatzen kide Aiala Eceiza, herriko alkate Jesus Zaballos eta Mugikortasun zinegotzi Agustin Valdivia, aurkezpen ekitaldian.

Aurrekontua, 7.320 euro

Mugikortasun Astea antolatzen aurrekontua 7.320 eurokoa izan da aurten, Valdiviak zehaztu legez.

Jesus Zaballos alkateak Mugikortasun Asteko ekintzetan parte hartzeko gonbitea luzatu zien herritarrei, eta nabarmendu azken urteetan “oso harrera ona” izan duela egitasmoak.

Kotxea garraibide jasangarriago batzuegatik ordezkatzeko da proiektuaren helburu nagusietako bat.

ARGENTINA

IPARRETIK HEGORA. AURREIKUSITAKO IRTEERA 2017/01/30

BIDAIA TALDEAN
Irteera Lasarte-Orietik

Erreserbak eta informazioa bulegoan

NOAOA BIDAIAK
GRUPO CLICK VIAJA

Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria
T. 943 373 613 - info@noaobidaiak.com
www.noaobidaiak.com

LABURRAK.-

Mikel Rodriguez herritarra garaile 'Vias Verdes' maratoian, errekorra bost minututan hobetuta

Andoainen bizi den Mikel Rodriguez Montaña herritarrak Plazaolako 'Vias Verdes' maratoia irabazi zuen aurreko igandean.



Sekulako lasterketa osatu zuen, errekorra bost minututan onduz eta bigarren sailkatuari hamabi minutu ateraz. Rodriguezek bi ordu, 27 minutu eta lau segundo behar izan zituen 42 kilometroko ibilbidea osatzeko. Podiuma Koldo Agirre eta Hugo Figuerasek osatu zuten.

Nafarroan hasi eta Gipuzkoan bukatzen den lasterketa da Plazaolako 'Vias Verdes' Maratoia. Lekunberrin dago irteera-lerroa; 42 kilometroz lasterka egin ostean, Andoainen helmugaratzen dira.

Intza KEren pilota eskolan izena eman daiteke

Denboraldi berri bati ekin zioten atzo Intza KEko pilota eskola-kideek, Michelingo frontoian. Dagoeneko entrenamendu-saioak hasi badituzte ere, oraindik zabalik dago izena emateko epea. Eskolan parte hartzeko interesa dutenek, frontoi horretara bertara gerturatu beharko dute, astearte eta ostegunetan, 18:30etik 20:30era bitartean, eta Jose Felix Solanorekin hitz egin. Prezioa 100 eurokoa da.

Benjamin eta alebinek 18:30etik 20:00etara entrenatuko dute, astearte eta ostegunetan. Infantil eta kadeteek, berriz, 19:00etatik 20:30era. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, pilota ikasturtearen egutegia eskola egutegiaren berbera izango da.

Buruntzaldea IKTren eskaintza 16/17 sasoirako

Urtero legez, Buruntzaldea IKT taldeak eskaintza zabala prestatu du igerian egiteko interesa daukaten herritarrentzat. Denboraldia prestatzeari aste honetan ekin diote, baina izena emateko epea ez da oraindik itxi. Ohi bezala, lan-saioak Udal Kiroldegi-ko igerilekuan burutuko dituzte.

Ordutegiak, entrenamendu egunak eta antzekoak kontsultatu ahal izateko, <https://buruntzaldeaikt.blogspot.com.es/> webgunean sartu behar dute herritarrek. Edozein zalantza edukiz gero, hainbat helbide elektronikoki jarri dituzte eskura Buruntzaldea IKT taldeko arduradun eta entrenatzaileek: galderak orokorrak badira, buruntzaldeaikt@gmail.com helbidera idatzi beharko dute, eta zalantzak entrenamenduen ingurukoak badira, zuzenean entrenatzailearekin jarri daitezke harremanetan, 696 506 632 zenbakira deitu edota borja.apeztegia@gmail.com posta elektronikora idatzita.

FUTBOLA.-

Etorriko dira egun hobeak

Ohorezko Erregionalak 1-4 galdu du Zarautzen aurka

Ostadar SKTk ez du liga ongi hasi. Aurreneko jardunaldia eta aurreneko porrota. Gogorra, gainera: 1-4 galdu zuten Mikel Medina eta Gabi Sanchezen jokalariek David Muñoz herritarrak entrenatutako Zarautzen kontra. Akatsetatik ikasi eta lanean segi behar. Etorriko dira egun hobeak.



Larunbatean Ostadar SKTk atera zuen hasierako hamaikakoa.

TXINTXARRI

Izan hedabideetan edo jokalariei zein entrenatzaileen ahotan, behin eta berriro irakurri eta entzuten dugu esaldi bera: akatsak oso garesti ordaintzen direla futboleko arerioei erraztasunak emanez gero ez baitute barkatzen.

La aspertzearaino errepikatzen dira topiko horiek, egia da hori, baina hainbestetan erabiltzen badira da normalean bete egiten delako esaten dena. Aurreko larunbateko partidaren behintzat bai: Ohorezko Erregionalak 1-4 galdu zuten Zarautzen aurka, hainbat akats eginda.

Hasi eta berehala maldan gora jarri zitzaion neurketa Ostadarri. Zarautz talde oso indartsua da estrategia jokaldietan; Michelinen ongi asko erakutsi zuen hori, eta hama-

bosgarren minuturako 0-2 irabazten zihoan, korner eta falta jaurtiketa bat sarreratuta.

Egoera ez zen samurra urdin-beltzentzat. Bigarren gola jaso eta hurrengo minutuetan Zarautz izan zen nagusi, jokalaria bat gutxiagorekin geratu bazen ere. Hirugarrena sartzeko zorian egon ziren.

Lehenengo zatia honddarrean 1-2koa sartu zuen etxeko taldeak: bikain errematatu zuen korner jaurtiketa bat Andoni Sanchezek. Itxaropentsu joan zen Ostadar atsedenaldira.

Akatsak garesti ordainduz

Esan dugu lehen ere: garesti ordaintzen dira akatsak, edozein kategoriatan. Egoera alde bazuen ere, Ostadarrek ez zuen jakin kudeatzen, eta atzean egindako pare bat akats baliatu zituen Zarautzek

norgehiagoka erabakita uzteko. Azkenean, 1-4. Porrot gogorra ligari ekiteko. Aparteko ezer egin ez bazuen ere, Zarautz hobeto aritu zen berdegunean; eduki zituen aukerak ez zituen alferrik galdu.

Hasiera besterik ez

Liga hasi besterik ez da egin eta ez da komeni dramatizatzeari. Hori bai, zuloan sartu eta atera ezinik geratu nahi ez badute, lehenbailehen puntuak pilatzen hastea komeni. Gaitasuna badute.

Lehenengo aukera igande honetan bertan edukiko dute, Gal zelaian (Irun), Real Union talde indartsuaren kontra. 0-1 irabazi zion Ostadarren aurkariak Aloña Mendiri. Horren ostean, kategoriako beste oilarretako bat etorriko da Michelinera: Anaitasuna. Zaila, baina ez ezinezkoa.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 17

Herrera, Donostia, 10:30ean

Sporting Herrera - Ostadar SKT
Kadeteen Igo maila,
Igo jardunaldia.

San Jose Obrero, Irun, 16:00etan

Dunboa Eguzki - Ostadar SKT
Jubenilen Ohorezko maila,
Igo jardunaldia.

Michelin, 17:15ean

Ostadar SKT - Lengokoak KE
Kadeteen Ohorezko maila,
Igo jardunaldia.

Arratzain, Billabona, 18:00etan

Billabona KE - Ostadar SKT
Erregionalen Igo maila,
Igo jardunaldia.

Zarkumendegi, Astigarraga, 18:00etan

Astigarraga Mundarro - Ostadar SKT
Jubenilen Igo maila,
Igo jardunaldia.

Igandea 18

Gal, Irun, 16:00etan

Real Union B - Ostadar SKT
Erregionalen Ohorezko maila,
2. jardunaldia.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 16

Udal Kiroldegia, 21:00etan

ISU Leihokak - Euskalduna
Gipuzkoako Igo maila,
lagunartekoa.

Larunbata 17

Udal Kiroldegia, 16:00etan

Cecilia Kebab Lasarte Ostadar -
Orioko Mirotzak
Gipuzkoako Igo maila,
lagunartekoa.

Udal Kiroldegia, 18:00etan

Ostadar Antonio Aroztegia -
Oiartzun KE
3. Nazional maila,
Igo jardunaldia.

PILOTA

Ostirala 16

Zubikoa pilotalekua, Oñati, 19:30ean

Aloña Mendi - Intza KE
Seniorren eskuz binakakoa, 3. maila,
Igo jardunaldia.

Kurtzea pilotalekua, Galdakao, 20:00etan

Arteaga II.a Lasoren kontra ariko da, lau t'erdian. Ostean, binakako neurketa: Bengoetxea VI eta Aretxabaleta, Urrutikoetxea eta Larunberen kontra.



SASKIBALOIA

Larunbata 17

Udal Kiroldegia, 11:00etan

Ostadar SKT - Ordizia KE
Errendimenduko juniorren A1 Liga,
Igo jardunaldia.

Hondartza kirol., Hondarribia, 16:00etan

Miramar Hondarribia - Ostadar SKT
Errendimenduko kadeteen A1 liga,
Igo jardunaldia.

LASTERKETAK

Larunbata 17

Esteribar, Nafarroa, 08:00etan

Herriko mendi lasterkari Peio Fadrique eta Iñaki Letamendik 'Nafarroa Xtrem' proban hartuko dute parte. 60 km. ditu ibilbideak

Igandea 18

Lesaka, Nafarroa, 09:00etan

Herriko zenbait BTT txirrindularik Lesakan dute hitzordua. 45 kilometro luze dituen 'Lesaka BTT itzulia 2016' proban ariko dira.

Usurbil, Gipuzkoa, 10:30ean

Herriko hainbat lasterkaririk 'IX. Baxurde Krosa' delako proban egingo dute lasterka. 10 kilometro ditu luze ibilbideak.

ERRUGBIA

Larunbata 17

Asti, Zarautz, 11:00etan

Lavie-ZRT Beltzak - Bera Bera
14 urtez azpikoak, lagunartekoa.

Ardanzas, Plentzia, 16:00etan

Uribealde RKE -
Babyauto Zarautz KE
Seniorren Ohorezko B maila,
Igo jardunaldia.



IGERIKETA

Latxartegi zinema, Legazpi, 11:30ean

Gipuzkoako Igeriketa Federazioak 15/16 denboraldiko gala ospatuko du. Bertan egongo dira baita ere Buruntzaldea IKT taldeko igerilari, entrenatzaile eta ahaideak.

Agenda

Astelehena 19-Larunbata 1, Lasarte-Oria



ANDRE JOAKINA ENEA
Astelehena 19, 17:00etan
Ikastolako eraikinen ibilbidea mapeatu eta kalejira.

ABEND KAFE-ANTZOKIA
Asteazkena 21, 19:00etan
Hainbat ikasle ohiren bizitza eta ibilbide profesionala ezagutu ahalko da.

VILLA MIRENTXU
Osteguna 22, 18:00etan
Kike Amunarrizen 'Lasarte-Oriako gurasoak: Biba zuek!' hitzaldia.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Ostirala 23, 22:00etan
'Bertso berriak Landaberrin ibilita-koek jarriak' bertso-saioa izango da.

Bertsoekin tartekatua musika eta antzerkiak izango dira.

ANDRE JOAKINA ENEA
Larunbata 24, 09:00etan
Ikastolako eraikinak eta historia gogoratuz ibilaldi komentatua egingo da.

OKENDO PLAZA
Larunbata 24, 10:30ean
Haur jolas eta puzgarriak.

OKENDO PLAZA
Larunbata 24, 12:30ean
Kantu Jira Txikia Xumela koruarekin.

OKENDO PLAZA
Larunbata 24, 17:00etan
Eriz magoaren magia ikuskizuna.

OKENDO PLAZA
Larunbata 24, 22:00etan
Rock Kontzertua.

MICHELINGO KIROL GUNEA
Igandea 25, 10:00etan
Ikasturte ezberdinetako taldeen arteko Euskal Olinpiadak. Ondoren, poteoa txarangarekin.

ANTONIO MERCERO ARETOA
Astelehenetik urriaren 1era.
Asteazken zehar, 17:30etik 20:00etara.
Larunbatetan, 11:00etatik 13:00etara. Lehen egunean irekiera, 18:30ean.
50 urte hauetako argazki eta ikasle-reen eskulanak bildu dituzte erakusketaren batean.

50. urteurrena ospatzen

Landaberi ikastolak aurten 50. urtemuga du. Hori ospatzeko bi asteko egitaraua antolatu du ekintzaz beteta. Hauek gaur egungo, zein iraganean izandako ikasle, guraso eta irakasleei zuzendutako emanaldiak dira edo haiek protagonista izango direnak.

Lasarte-Oria

Xacobeo Azoka

OKENDO PLAZA
Ostirala-Igandea
I. Xacobeo azoka antolatuko da.

Mugikortasun astea

Ostirala 23
KALE NAGUSIA
16:30etik 19:30era, 'Kalea Jolaserako' ekimena izango da. Bizikleta jolasak, segway zirkuitua, herri kirolak... izango dira txikientzat.

OKENDO PLAZA
16:30ean eta 17:00etan, bizikleta martxak izango dira.

16:30etik 19:30era, bizikleten bigarren eskuko azoka.

Usurbil

Gerra zibila: 80. urteurrena

SUTEGI KULTUR ETXEA
Osteguna, 19:00etan
'Memoria eta aztarnak' hitzaldia eskainiko da. Pako Etxeberria eta Lourdes Errazti Aranzadiko kideek eta Joxean Muguruza Islada Ezkutatuak elkarteko kideak.

TXALDATXUR
Larunbata, 9:00etan
Usurbildik aterata Txaldataxurreko lubakietara irteera.

ASKATASUNA PLAZA
Larunbata, 13:00etan
Zigortu eta gudarien 'oroitzapen ekitaldia'. Aitzaga elkarteak antolatua.

Santueneako Jaiak

SANTUENEA AUZOA
Ostirala
17:00etan, txupinazoa eta txokolatada. Ondoren, globo gerra.
18:30ean, buruhandiak eta Batukada edo elektrotxaranga.
19:00etan, sardina jana.
23:30ean, kontzertuak: Zaparra, Los Zopilotes Txirrius eta Gaitzerdi Erromeria.

Larunbata
11:00etan, haur jolas eta pintura lehiaketa.

13:00etan, buruhandiak.
14:00etan, haur bazkaria. Norberak bere bazkaria eraman, eta edariak eta postrea bertan banatuko dira.
16:00etan, mus txapelketa.
16:00etan, haurrentzako puzgarriak.
17:30ean, txokolatada.
19:00etan, buruhandiak.
20:30ean, kantu Afaria.
00:00etan, dantzaldia DJ Aros-ek girotua.

Igandea
11:00etan, toka txapelketa.
12:00etan, hamaiketako txosnan.
14:00etan, herri bazkaria.
17:00etan, Gorritiren showa.
Ondoren, buruhandiak.
19:30ean, piper dastaketa.
21:00etan, festen amaierako traka.

Herritarren txokoa

Udako Txoko eta kanpaldieetako arropa

Ttakun K.E.ko Aisia sailak jakin arazten du, Udako Txoko edo Donemiliaga eta Albeniz udalekuen ostean jasotako arropa Ttakuneko bulegoan esku-ragarri dagoela.

Jertseak, txaketak, kamisetak, amantalak, galtzak... irailaren 12tik 23ra jaso ahalko dira bulegoko ordutegian: astelehenean arratsaldeko 16:30etik 19:30era, asteartetik ostegunera goizetan 09:00etatik 13:00etara eta arratsaldetan 16:30etik 19:30era eta ostiraletan, goizez bakarrik 09:00etatik 13:00etara.

Neguko ordutegia kiroldegian

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak jakitera eman duenez, irailaren 1ean ezarri zen neguko ordutegia herriko kirol instalazioetan.

Kiroldegiko guneak astelehenetik ostiralera 7:00etatik 22:30era erabili ahal dira. Larunbatetan 9:00etatik 20:00etara dago irekia eta igandetan berriz, goizean 9:00etatik 13:00etara.

Michelingo Kirol guneari dagokionez, astelehenetik ostiralera arratsalde egongo da irekia, 15:30etik 22:30era. Larunbatetan, berriz, egun osoz erabili ahalko dira gune ezberdinak, 9:00etatik 20:00etara, eta igandetan goizez bakarrik 9:00etatik 13:00etara.

Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, irailaren 26an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitzete, odola ordezkazena da eta odol falta dago!

Hemeroteka

Duela 1230 ale

1998ko irailean Lasartearra elkar-teak bere XXV. urteurrena ospatu zuen. TXINTXARRI aldizkariak irailaren 19 eta 20ean antolatutako ospakizunen eta elkartearen sorreraren berri eman zuen erreportaje batean. Horretarako orduko lehendakariarekin Inazio Urruzolarekin solasaldia izan genuen.



Lasartearra elkar-tea C.D. Lasarte futbol taldearen zaletuek sortu zuten. Lokala lortu eta hau eraberritzeko bazkideek lan ederra egin zutela azpimarratu zuen orduko lehendakariak, honela 1973ko abuztuaren 31ean Erribera kaleko egoitza inauguratu zuten.

Futbolarekin zer ikusia zuten bi ekintza egon ziren elkartearen ospakizunen barruan, Texas Lasartearra eta Ostadar K.F. taldeen arteko partida eta herriko jokalarri famatuekin hitzaldi bat.

Baina kirola sustatzeaz gain, orduan herriko beste jaietan ere parte hartze zuen elkar-teak. Inauterietan, esate batearako. Lasartearrak elkarteko kideek karroza bat prestatzen zuten eta umorea zen nagusi honetan. Urteurrenaren ospakizunen artean, danborrada ezin ahaztu. Honek eman zien hasiera iraileko ekitaldiei.

Honen harira elkar-tea gizartera ireki zela aipatzen zuen Urruzolak eta emakumeak ere asteburuetan sartzeko aukera zutela azpimarratzen zuen, baita kulturaren inguruko ospakizunetan parte hartzeko ere.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48 txintxarri@txintxarri.eus

Emaiazu buelta bat zure munduari euskararekin 2016-17



IBILBIDEAK

- Aurrez aurreko ikastaroak, hainbat iraupen eta intentsitatetakoak.
- On-line ikastaroak, autoikaskuntza...

AGENTZIAK

Udaleko euskaltegia
Muntteri-AEK euskaltegia

BALDINTZAK

- Lasarte-Orian erroldatua egotea
- 16 urte beteak izatea ikastaroa amaitzen den egunean.
- Ikastaro hauetakoren bat egina izatea:
 - 1- Euskaltegiko ikasturtean zeharreko ikastaroa, gutxienez 80 ordukoa.
 - 2- Barnetegia, gutxienez hilabete segidan baldin bada.
 - 3- Udako ikastaroak (ikasturtean zehar aurreko ikastaro-mota horietako bat egin duten ikasleen kasuan bakarrik)
- Gutxienez % 85eko asistentzia eta gutxienezko aprobetxamendua gainditua.

Dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo 15 egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera.

ONDO iBili!

Informazio gehiago
Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.eus

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

USURBILGO LANBIDE ESKOLA **DOAKO IKASTAROAK LANGILE ETA LANGABETUENTZAT** **HOBETUZ**

ESKAITZA IREKIKO ETA PROFESIONALITASUN-ZIURTAGIREI DAGOZKIEN IKASTAROAK Astelehenetik ostegunera, 18.00etatik 21.00etara

<p>ELEKTRIZITATEA/ELEKTRONIKA</p> <ul style="list-style-type: none"> • SIEMENS S7 + TIA PORTAL oinarritzkoa eta aurreratua • Oinarritzko elektrizitatea 	<p>MANTENIMENDUA/ENERGIA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bero, hotz eta aire girotu instalakuntzak • Energia berriztagarriak • Mikrokogenerazioa • Termografia • Hoditerien soldadura eta lotura 	<p>ADMINISTRAZIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aplikazio informatikoak • Bezeroarekiko arreta eta salmenta • Kontratazioko berrikuntzak • Google apps 	<p>FABRIKAZIO MEKANIKOIA</p> <ul style="list-style-type: none"> • CATIA V5-V6 /CAE • CNC FANUC eta HEIDENHAIN • CAM GIBBS · Soldadura elektrikoa • 3D inprimagailuak • AUTOCAD/SOLID EDGE
--	---	--	---

USURBILGO LANBIDE ESKOLA **HOBETUZ** **EUSKO JAULANITZA**

CIFP USURBIL LHII Erarte bidea, 9 (Zubieta auzoa) 20170 Usurbil (Gipuzkoa) · cursos@lhusurbil.eus · www.lhusurbil.eus **Telefona: 943 36 46 00**

URKULLU LEHENDAKARI **ERAIKI EUSKADI MIRA AL FUTURO**



ej pnv